

A high-angle, blurred photograph of a busy pedestrian crossing. People are captured in motion, creating a sense of a fast-paced urban environment. The white stripes of the crosswalk are prominent against the grey asphalt.

# 2018ko MAIATZA **EUSKO BAROMETROA**

Euskal iritzi publikoari  
buruzko aldizkako azterketa





# 2018ko MAIATZA BAROMETROA

Euskal iritzi publikoari buruzko  
aldizkako azterketa



Fundación  
**IBERDROLA**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



DEPARTAMENTO DE  
CIENCIA POLÍTICA  
Y DE LA ADMINISTRACIÓN  
POLITIKA ETA  
ADMINISTRAZIO ZERBITZEN SALA

# AURKEZPENA

**EUSKOBAROMETRO** ([www.ehu.es/euskobarometro](http://www.ehu.es/euskobarometro)) izeneko ikertaldeak UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Sailaren barnean dihardu, **Francisco José Llera Ramo** irakaslearen zuzendaritzapean. Irakasle eta ikerlari talde egonkor batek osatzen du: Arantxa Elizondo, Jonatan García, Patxi Juaristi, Rafael Leonisio, José M. Mata, Juantxo Mokoroa, Carmelo Moreno, Ainhoa Novo, Alberto de la Peña, Sergio Pérez eta Alfredo Retortillo. Taldekide ere izan dira edo taldean trebatu dira: Eider Alkorta, Juan Luis Arriaga, Yosune Iraola, Eva Martínez, Pablo San Martín, Beatriz Santisteban eta Raquel Sanz.

Ikertaldearen proiektua 1995. urtean jarri zen martxan, 70eko hamarkadaz geroztik bildutako ikerketa esperientzia handia baliatuta. Helburu nagusia euskaldunen portaera politikoa eta iritzia publikoa aztertzea zen, eta horri erakundeen eta politika publikoen analisiari eta bilakaerari lotutako beste helburu batzuk batu zaizkio. Zentzu horretan, **EUSKOBAROMETRO TALDEA**ren jarduera oso emankorra izan da azken urteotan, eta horren erakusle dira bere iritzia barometroaren inkesten segidak izandako oihartzuna eta azterketa ugariak. Gaur egun, Euskobarometro Taldea kalitate zientifikoa aitortua daukan talde bat dela esan dezakegu; izan ere, Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate sisteman ebaluatutako 200 ikertaldearen rankingeko lehen postuetan dago, eta 2013an lehen lekuari eutsi zion Gizarte Zientzietako ikertaldearen artean, bost urteren ondoren: [www.ehu.es/euskobarometro](http://www.ehu.es/euskobarometro).

- 1) Euskobarometro Taldearen lehen emaitza praktikoa datu banku oparo bat sortzea izan da, sei hilabeteen behin eginiko Euskobarometroa izeneko inkestetan eskuratutako datuak oinarri hartuta. Hemendik gutxira, bildu eta sistematizatutako milioika datu horiek guztiak on-line kontsultatu eta tratatu ahal izango dira; oraingoz, ordea, horien aukeraketa esanguratsu bat eskaini dezakegu. Datu horiek, 50.000 euskal herritarrek baino gehiagok eskuzabaltasunez emandako erantzunen bidez jasotakoak, kontsulta daitezke gure webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN SERIE KRONOLOGIKOAK** atalean.
- 2) Euskobarometro Taldeak berak Euskobarometroaren udaberriko eta udazkeneko inkesten emaitza nagusiak ematen ditu aditzera hedabideetan eta iritzia publikoaren aurrean. Emaitzetan, datu politikoak, sozialak eta ekonomikoak ematen ditu. Datu horiek guztiak aipatutako webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN AURKEZPENAK** atalean kontsulta daitezke.
- 3) Euskobarometro Taldeak Euskadirako hauteskunde estimazioak aurreratu ohi ditu, hauteskunde garaian gauden aldira. Euskal hauteskunde autonomikoen inguruan eginiko aurreikuspen horiek **EUSKOBAROMETROAREN HAUTESKUNDE ESTIMAZIOAK** atalean kontsulta daitezke, webgune berean.
- 4) Era berean, Euskobarometro Taldeak beste era bateko ikerketa eta aholkularitza lanak egiten ditu aldira behin, analisi enpirikoen, erakunde ebaluazioaren eta politika publikoaren arloan, gehienbat. Jarduera horiek ikus daitezke ere **EUSKOBAROMETRO TALDEAREN LANEN ZERRENDA** atalean, webgune berean.
- 5) Euskobarometro taldeak eginiko lanen artean, bereziki aipatu behar dira generoari eta gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko politikei buruzko

ikerketak. Horren harira, taldeko irakasleak eta ikertzaileak hainbat ikerketa eta aholkularitza lan egiten ari dira erakundeekin batera, genero ikuspegia jardun publikoan txertatzeko eta sexuen arteko bazterkeriarekin amaitzeko aurrerapausoak emate aldera. Jarduera horiek guztiak ere webgune berean daude ikusgai, **GENERO IKERKETAK** atalean.

- 6) la hasieratik, **EUSKOBAROMETROAK** arreta berezia eskainiko dio Euskal Herriko Unibertsitatearen irudi publikoaren ezagutzari, eta aitzindaria izan da arlo horretan. Hala, 1996. urteaz geroztik, **UPV/EHuren gizarte hedapenari buruzko ikerketa** argitaratu dugu urtero, eta lanaren azken edizioa gure webgunean kontsulta daiteke, errektoreak aldeztu aurretik baimena emanda.
- 7) Euskobarometro Taldeak, 2000. urtean, Informazioaren Gizartearen Euskadiko Behatokia (IGEB) izeneko zerbitzu berria sortu zuen, informazioaren teknologia berriek euskal komunitatean duten eragina neurtzeko. Emaitzak kontsulta daitezke, halaber, webgune berean, **INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN EUSKADIKO BEHATOKIA** (IGEB) estekan.
- 8) Europan euroa indarrean sartu, erakundeak erreformatu, eta Europar Batasuna handitu denez eta nazioarteko egoera ere aldatu denez, gai horiekiko interesa areagotu dela ondorioztatu dugu. Horren harira, **EUROPAKO INTEGRAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO GIZARTEAREN EUSKAL BEHATOKIA (ENEB)** sortzeko beharra ikusi genuen. Behatoki horri buruzko informazioa ere orri horretan sartu genuen, 2001eko udazkeneko barometroaren ondoren.
- 9) 2001. urteaz geroztik, **EUSKOBAROMETROAK**, Bartzelonako, Granadako eta Santiagoko unibertsitate autonomoen (ICPS) eskualdeetako unibertsitate barometroekin batera, abian du **POLITIKA AUTONOMIKOAREN BEHATOKI (PAB)** berria, non beren galdetegiengatik zati komunak partekatzen, aldatzen eta aldi berean behin zabaltzen diren. PABek webgune ([www.opa151.com](http://www.opa151.com)) eguneratu bat dauka, eta bertan eskualdeetako barometroetara sartzeko estekak ematen dira.
- 10) Horrez gain, azken urteetan **EUSKOBAROMETRO TALDEAK** ikerketa nazionalen lerro berri bat ireki du, beste erakunde batzuekin lankidetzan. Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziarekin (ANECA) izandako lankidetzaren emaitza gisa, **Espainiarrak eta Unibertsitatea** izeneko azterketa aitzindaria egin zen. **Espainiako unibertsitate sistemaren irudi publikoari buruzko lehen inkesta nazionala** aipatutako erakundeak argitaratu zuen, 2004an, eta gure webgunean kontsulta daiteke. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin (TBF) eta Ikerketa Soziologikoen Zentroarekin lankidetzan egindako lanaren emaitza izan zen, halaber, **Espainiarrak eta terrorismoaren biktimak** izeneko azterlan aitzindaria. **Estatuko lehen inkesta hura** CISEk argitaratu zuen, 2004an. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin lankidetzan ere, **“Percepción ciudadana sobre el terrorismo y sus víctimas” izeneko estatu mailako II. inkesta** argitaratu zen, 2005ean, eta **izenburu bereko III., IV. eta V. inkestak** 2006an, 2007an eta 2008an argitaratu ziren, hurrenez hurren. Lan horiek guztiak gure webgunean kontsulta daitezke.

*UPV/EHUko Zientzia Politikoko Sailaren  
EUSKOBAROMETROA ikertaldeak, jarraian emandako  
iruzkin eta datuen bidez, 2018ko maiatzean egindako  
udaberriko inkestaren emaitza nagusiak aurkezten ditu.*

*Informazio hau gure webgunean kontsultatu eta  
sakondu daiteke:*

[www.ehu.eus/euskobarometro](http://www.ehu.eus/euskobarometro)

# Aurkibidea

---

I.	FITXA TEKNIKOA	6
II.	EGOERA PERTSONALA, KEZKAK, GIZARTE ETA EKONOMIA GIROA, DEMOKRAZIAREN ONDOEZA ETA KONSTITUZIOARI EMANDAKO BABESA	7
III.	GOBERNU ETA POLITIKA GIROA ETA HORREN EBALUAZIOA, EUSKARA IRAKASKUNTZAN, ALDERDIEN IBILBIDEA ETA LIDERGO POLITIKOA	19
IV.	ABERTZALETASUN SENTIMENDUA ETA IDENTITATEA, ESTATU EREDUA, AUTOGOBERNUA, BABESA ESTATUTUARI, INDEPENDENTZIAREKIKO JARRERAK ETA KATALUNIako KRISIA	33
V.	ETAren IBILBIDEAREN EBALUAZIOA, HAREN AMAIERAREKIKO JARRERAK ETA PRESOEN ETORKIZUNA	49

---

# I. go Atala

## 2018ko MAIATZEKO EUSKOBAROMETROAREN FITXA TEKNIKOA

**Egilea:** UPV/EHuko Politika Zientzia Saileko *EUSKOBAROMETRO* taldea, **Francisco J. Llera Ramo** irakaslea zuzendari duena. **José M. Mata** eta **Carmelo Moreno** irakasleak aritu dira taldean, **Rafael Leonisoren** laguntza teknikoaz.

**Landa lana:** Banakako elkarrizketak, **CPSren** landa sareak galdetegi egituratu batez ethez etxe egindakoak, 2018ko maiatzaren 9tik 26ra.

**Unibertsoa:** Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urteko eta hortik goragoko biztanleria.

**Laginaren tamaina:** Etxeetan egindako 600 inkesta.

**Laginaren diseinua:** Etapa anitzekoa eta auto-haztatua, **EUSTATEN** metodologiaren arabera, 21 udalerritako (2 Araban, 9 Bizkaian eta 10 Gipuzkoan) 30 errolda sekzioetan egin zen, eta banakoak ausaz hautatu ziren, adin eta sexu kuoten arabera.

**Laginaren errorea:** % 95eko konfiantza mailarako eta  $p = q = 0,5$  biztanleria aldakortasun gorenekotzat hartuta, laginaren errorea lagin osorako  $\pm$  % 4,08 da.

**Igotzaileen kalkulua:** Metodo interaktibo baten bidez, laginak probintzia, sexu, adin eta heziketa mailaren arabera egokitu dira, **EUSTATEK** 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren "Errolda sekzioen tipologietan" (1.721 sekzioetako 9 tipologia) oinarrituta egindako zozketatik abiatuta. Horrez gain, sekzioak aukeratzeko 2012ko Etxebizitzen Direktorioa erabili da, urte bereko Biztanleria Erregistroaren eguneratzearekin batera, 2012ko sekzio banaketarekin.



# II. Atala

---

Gehiengoak positiboki baloratzen du bere egoera pertsonala, 2018an, eta krisiaren aurreko gogo aldartea finkatzen ari da.

---

Ezkortasuna iraunkorra da, batik bat Espainiako ekonomiarekiko; haatik, hobe da euskal ekonomiaren egoeraren gaineko pertzepzioaren bilakaera.

---

Egonkortu da ekonomia krisiaren eraginak hautematen dituen gehiengo nagusia.

---

Enpleguak kezka nagusia izaten jarraitzen du, eta pentsioak indarrez sartu dira.

---

Atzera egin du berriro politikaz hitz egiteko askatasun sentimenduaren hobekuntzak, sektore guztietan.

---

Demokrazia sistema honek gogobetetzen ez duen gehiengo mantentzen da, eta bat datoz horretan hautesleria guztiak.

---

Espainiako Konstituzioaren aldeko jarrera berreskuratzen da, eta kontrakoari gailentzen zaio berriro.

---

## GEHIENGOAK POSITIBOKI BALORATZEN DU BERE EGOERA PERTSONALA, 2018AN, ETA KRISIAREN AURREKO GOGO ALDARTEA FINKATZEN ARI DA

Lau euskaldunetatik hiruk (% 75) uste dute 2018. urtea ona izan dela arlo pertsonalean, eta gainerakoek esperientzia negatiboren bat aipatu (% 9) edo jarrera eszeptikoa erakutsi dute (% 16). Azken hiru urteetan, egonkortu egin dira 2015. urte amaieran egiaztatu zen baikortasunaren berreskurapen argia (+21 puntu) eta ezkortasunaren atzerakada korrelatiboa (-14 puntu). Orduan esan genuen bezala, bilakaera honek erakusten digu pixkanaka ekonomia krisiaren aurreko gogo aldartea berreskuratzen ari dela (ikus 1. grafikoa).

## EZKORTASUNA IRAUNKORRA DA, BATIK BAT ESPAINIAKO EKONOMIAREKIKO; HAATIK, HOBEA DA EUSKAL EKONOMIAREN EGOERAREN GAINKO PERTZEPZIOAREN BILAKAERA

Era berean, azken seihileko honetan, azken bi urteetan izandako atzerakada nabarmenaren ondoren (-29 puntu), eten egin da Espainiako egoera ekonomikoaren inguruko gehiengoaren ezkortasuna (% 58), baina baikorren multzoak ez du gora egin (% 7), ezta eszeptikoenak ere (% 34). Ostera, euskal ekonomiaren bilakaerari dagokionez, duela sei seihileko hasi zen hobekuntzari jarraiki, baikorrak (% 28) ezkorrak (% 23) baino gehiago dira bi seihilekoz jarraian, eszeptizismoak nagusi izaten jarraitzen badu ere (% 48) ---ikus 2. grafikoa---

## EGONKORTU DA EKONOMIA KRISIAREN ERAGINAK HAUTEMATEN DITUEN GEHIENGO NAGUSIA

Hamarretik zortzi inguruk (% 81) krisiaren eragina jasaten ari direla edo jasan dutela diote, oraindik, eta bostetik bi inguru (% 41) intentsitate handiagoz jasaten ari dira, edo jasan dute; hortaz, inpaktu adierazle hau bere horretan mantendu da argi eta garbi seihileko honetan --- ikus 3. grafikoa ---.

## ENPLEGUAK KEZKA NAGUSIA IZATEN JARRAITZEN DU, ETA PENTSIOAK INDARREZ SARTU DIRA

Enpleguak sortzen duen kezkak (% 51) lehen postuan jarraitzen du, baina seihilekoan izandako etenak azken bi urteetako beherakadarekin (-19 puntu) kontrastatzen du. Askoz beherago dago "gizarte desberdintasunak eta ongizatea" (% 21) epigrafean bildutako arazoaren multzoa; seihilekoan igoera arin bat izan du epigrafe horrek pentsioen eraginez (% 9), arazo ekonomikoak izandakoaren parekoa (% 9). Egoera

politikoarekiko kezka indarra galdu du (% 7), jaitiera nabarmen bat edukita (-10 puntu azken seihilekoan). Dezente atzerago kokatzen dira indarkeria, baketzea, presoak edo euskal arazoa; oro har, % 2an mantentzen dira, eta oso gutxi aipatzen dira ingurumena, immigrazioa eta bestelako gaiak (ikus 4. grafikoa).

## **ATZERA EGIN DU BERRIRO POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUN SENTIMENDUAREN HOBKUNTZAK, SEKTORE GUZTIETAN**

Azken lau urteotan adierazle honek izan dituen aldaketa positiboen ondoren, nahiz eta gorabehera txiki batzuk izan, azken urtean eta bigarren seihilekoz jarraian atzera egin du (-10 puntu) edonorekin politikaz hitz egiteko askatasun sentimenduaren hobekuntzak. Nolanahi ere, gehiengo batek partekatzen du berriro (% 48) sentimendu hori. Aldi berean, mantendu edo sendotu dira pertsona batzuekin bakarrik hitz egin dezaketela diotenen gutxiengoak (% 35) eta inorekin hitz egiteko gai ez direla diotenenak (% 16). Jada ez da desberdintasun nabarmenik ikusten sektore ideologiko edo identitarioen artean (ikus 5. grafikoa).

## **DEMOKRAZIA SISTEMA HONEK GOGOBETETZEN EZ DUEN GEHIENGOA MANTENTZEN DA, ETA BAT DATOZ HORRETAN HAUTESLERIA GUZTIAK**


Egonkortu egin da gure sistema demokratikoaren funtzionamenduak gogobetetzen ez dituen herritarren gehiengoa (% 81), eta gogobetetzen dituenak gutxiengoa dira (% 18). Espainiako eta EBko batez bestekoaren azpitik jarraitzen dugu. Berriro ere, gogobeteta ez daudenen artean, abertzaleak (% 87) nahiz ez-abertzaleak (% 77) daude, eta gai honetan hurbil daude bi taldeen pertzepzioak. Demokraziarekiko gogobetetze ezaren sentimendu hori hautesleria guztiek partekatzen dute (C's-ren % 57tik EHBren % 96ra) ---ikus 6. grafikoa---

## **ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ALDEKO JARRERA BERRESKURATZEN DA, ETA KONTRAKOARI GAILENTZEN ZAIO BERRIRO**

Gaur egun Konstituzioari buruzko erreferendum bat egingo balitz, BAIETZAK (% 30) hobera egingo luke (+ 5 puntu), eta ezetzari (% 28) gailenduko litzaioke berriro; horrek azken urteetako krisiaren aurreko egoerara eramango gintuzke. Aldeko iritzia, neurri batean, gehiago ageri da ez-abertzaleen artean (% 34), baina lau abertzaletatik batek baino apur bat gehiagok partekatzen du (% 26). Bestalde, boto negatiboak, orain dela


hogeita hamar urtekoa baino altuagoa bada ere, nabarmen egin du atzera (- 9 puntu azken sei hilekoan), bai abertzaleen (% 37), bai ez-abertzaleen artean (% 21). Aurreko hauteskunde autonomikoen hautesleriari erreparatua, baiezkoaren aldekoen artean, popularrak (% 67), sozialistak (% 61), C´s-koak (% 43) eta PNVkoak (% 40) dira nagusi; ostera, ezezko botoa soilik nagusitzen da EHBren (% 56) eta Elkarrekin Podemosen (% 41) boto emaileen artean --- ikus 7. grafikoa ---.

1. Grafikoa: EUSKALDUNEN EGOERA PERTSONALAREN BILAKAERA, 1993-2018




## 2. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIako EGOERA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA

### ESPAINAKOIA




### EUSKADIKOIA




### 3. Grafikoa: KRISI EKONOMIKOAREN ERAGIN PERTSONALA

Araba= 29% (+12)  
Gipuzkoa= 17% (-9)  
Bizkaia= 17% (-2)




Araba= 35% (-7)  
Gipuzkoa= 42% (+4)  
Bizkaia= 43% (+3)

4. Grafikoa: EUSKALDUNEN HIRU KEZKA NAGUSIAK (ERANTZUN ANIZTUNAREN BATURA)







## 5. Grafikoa: POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUNA



## 6. Grafikoa: GOGOBETETZE MAILA GURE DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUJAREKIKO



7. Grafikoa: ESPAINIAKO KONSTITUZIOARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKERA, 1878 ETA 2018 ARTEAN\*



\* Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2017ko Urria)



# III. Atala

---

Espainiako egoerari buruzko ezkortasuna goi-goian dago berriro. Bien bitartean, euskal politikari buruzko balorazio ona eten da, eta eszeptizismoa da nagusi.

---

Urkullu lehendakariak eta haren gobernuak gainditu dute, aurreko balorazioa hobetuta.

---

Gehiengoak PNvk PPren gobernuaren aurrekontuak onartzea babesten du.

---

Iritziak zatituta daude, PNvk katalanen 155aren aurkako jarrerari emandako babesaren aurrean.

---

Euskara derrigorrezko hezkuntzan komunikazio hizkuntza gisa nabarmentzen da, baina gaztelania eta ingelesarekin batera.

---

Euskal gizartea euskarak eskoletan presentzia nabarmena izatearen aldekoa da, presentzia hori gurasoen aukeratzeko ahalmenearekin eta gaztelaniarekin bateragarria bada.

---

Soilik PNvk lortu du saldo positiboari eustea, herritarrek euskal alderdiei emandako balorazioan, eta PSE-EE da bere boto emaileek gutxien baloratzen dutena.

---

Urkullu lehendakaria da gaindizetik gertu dagoen bakarra.

---

## ESPAINIAKO EGOERARI BURUZKO EZKORTASUNA GOI-GOIAN DAGO BERRIRO. BIEN BITARTEAN, EUSKAL POLITIKARI BURUZKO BALORAZIO ONA ETEN DA, ETA ESZEPTIZISMOA DA NAGUSI

Espainiako egoera politikoak sortutako ezkortasuna oso handia da oraindik (% 76), nahiz eta - 12 puntu jaitsi den orain dela hiru seihilekoko errekorrekin alderatuta. Ia ez dago baikorrik (% 4), eta hamarretik ia bi eszeptikoak dira (% 18). Aitzitik, euskal politikari buruzko balorazioan, haren hobekuntza joera eten bada ere (- 4 puntu azken seihilekoan), baikorrak gehiago dira (% 29) ezkorak baino (% 27), seihilekoetan izandako aurrerapen eta atzerapen korrelatiboen ondoren, zeinek 2 puntura bakarrik jarri baitute bi taldeen artean lehen zegoen 15 punturen aldea. Gainerakoan, eszeptizismoa nagusi da oraindik (% 42) eta azken urtean joera egonkortu da. Abertzaleak eta ez-abertzaleak bat datoz berriro Espainiako egoera politikoari buruz nagusi den ezkortasunean (% 79 eta % 73, hurrenez hurren), baita euskal egoera politikoari buruzko eszeptizismoan ere (% 41 eta % 44, hurrenez hurren) ---ikus 8. grafikoa---

## URKULLU LEHENDAKARIAK ETA HAREN GOBERNUAK GAINDITU DUTE, AURREKO BALORAZIOA HOBETUTA

Euskal gizarteak eman dien batez besteko notaz (5,4) berriro gainditu dute, 3 hamarren hobetuta azken seihilekoan, eta 5 hamarren, orain dela urtebeteko notarekin alderatuta; hala, azken urteko joera negatiboa irauli da. Batez besteko kalifikazio hori gainditzen dute PNVren (6,5), C's-ren (6,6) eta PSE-EE (5,7) boto emailleek, eta oso gertu geratzen dira PPrenak (5,3); ostera, Elkarrekin Podemosen (4,8) eta EHBren (4,6) hautesleriak gaindituaren azpitik gertatu dira. Deigarria da, halaber, ia nota bera lortzen dutela ez-abertzaleen (5,2) eta abertzaleen (5,7) artean. Era berean, gehiago dira gobernuaren kudeaketa gaindituztat ematen duten euskaldunak (% 75), hura gainditu gabe uzten dutenak baino (% 20), aurrerapen (+ 7 puntu) eta atzerapen (- 10 puntu) nabarmenak izanda, hurrenez hurren, azken seihilekoan (ikus 9. grafikoa).

## GEHIENGOAK PNVk PPren GOBERNUAREN AURREKONTUAK ONARTZEA BABESTEN DU

Azken bi urte hauetan, PNVren babesa erabakigarria izan da PPren gobernuak aurkeztutako Estatuko Aurrekontu Orokorrek onartzeko, eta horrelakoa ari da izaten ere PPren babesa Eusko Legebiltzarrean, EAEko aurrekontuak onartzeko. Hori dela eta, hainbat gobernu mailatan ezarritako aliantza askotako sistema batean emandako harreman politikoen konplexutasuna dela eta, egokia iruditu zaigu euskal gizarteak PNVk estatuko aurrekontuei emandako babesari buruz duen iritzia ezagutzea. Hala, gehiengoak (% 48) jarrera hori babesten du, bai abertzaleen (% 50) bai ez-abertzaleen (% 46) artean, eta hautesleria gehienetan (abstentzionisten % 40tik popularren % 100era; tartean egonda, C's-ren % 43a, sozialisten % 57a eta PNVren boto emailen % 77 --- soilik % 11 kontra ---). Gehiengo horren aurrean, hamarretik ia hiru (% 29) aurka daude; batik bat, Elkarrekin Podemos (% 50) eta EHBren (% 55) boto emailen artean, eta horiez gainera, lautik ia bati berdin zaie, edo ez dute horren gaineko iritzirik adierazi (ikus 10. Grafikoa).

## IRITZIAK ZAITUTA DAUDE, PNVk KATALANEN 155AREN AURKAKO JARRERARI EMANDAKO BABESAREN AURREAN

PNVk aurrekontu orokorre emandako babesa Kataluniako Generalitatearen CEren 155. artikulua bertan behera uztearen baldintzapean egon da; artikulua horren aplikazioa Espainiako alderdi handiek eta parlamentuaren gehiengoak babestu dute, eta aurka egon dira abertzaleak, oro har, eta UP eta haren bilguneak. PNV bigarren bloke horretan kokatu zen, eta baldintzarik gabe babestu zuen Kataluniako nazionalismoaren jarrera 155. artikulua aurka, PPren gobernuaren aurrekontuak berriro babesteko eragozpen gisa jartzeraino, nazionalismoaren estrategiak, guttiz partekatzen ez zuenak, eragiten zion deserosotasuna gorabehera. Hori dela eta, PNVk Kataluniako independentisten 155. artikulua aurkako jarrerari emandako baldintzarik gabeko babes horri buruz euskal gizarteak duen iritzia ezagutzeari egoki iritzi diogu. Iritzien banaketa agerian geratu da; hala, PNVren jarrera gehiengo txiki batek babesten du (% 43), eta gutxiengo esanguratsu bat dago aurka (% 37); % 12 ez da inon kokatzen, eta % 8ak, berriz, ez du adierazpenik egin. Kasu honetan, agerikoa da alde dauden abertzaleen (% 63) eta kontra dauden ez-abertzaleen (% 53) arteko aldea, bakoitzaren hautesleriak alde (PNVren % 53 eta EHBren % 60, eta EPren % 50) eta aurka (PSE-EEren % 71, C's-ren % 72 eta PPren % 83) egonda, hurrenez hurren. Nolanahi ere, adierazgarriena da PNVren boto emaileen heren batek ez duela ongi ikusten babes hori (ikus 11. Grafikoa).

## EUSKARA DERRIGORREZKO HEZKUNTZAN KOMUNIKAZIO HIZKUNTZA GISA NABARMENTZEN DA, BAINA GAZTELANIA ETA INGELESAREKIN BATERA

Aurreko aldiaren egiaztatu genez, euskal gizartearen gehiengoak babesten du; alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren euskararen normalizaziorako politika, eta, bestetik, "euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzearen aldeko" hizkuntza politika bat, baina "inposiziorik eta presarik gabe". Alderdi horri lotuta, oraingo honetan, euskarak irakaskuntzan betetzen duen eginkizunean jarri dugu arreta. Zehazki, lehen eta bigarren hezkuntzako zentro publikoetan euskarazko, gaztelaniako eta ingelesezko irakaskuntzaren ordutegiaren banaketaz galdetu diegu elkarriketatuei, eta oso antzeko emaitzak atera dira bi hezkuntza mailetarako: irakaskuntzaren orduen ia erdiak euskaraz eman beharko lirateke (% 46/47), eta gainerakoak gaztelaniaren (% 27/28) eta ingelesaren artean (% 25/27) banatu. PNVren eta UPren boto emaileen jarrerak lagin osoaren antz handia badu ere, EHBren boto emaileak euskaraz emandako orduen pisua % 60tik gora izatearen aldekoa da, eta, aldiz, sozialistak euskara eta gaztelania % 40 inguruan parekatzearen aldekoak dira. Popularrak bereizten dira, gaztelania % 40tik gora indartzearen aldekoak baitira, euskararen presentziaren kaltetan (ikus 12. grafikoa).

## EUSKAL GIZARTEA EUSKARAK ESKOLETAN PRESENTZIA NABARMENA IZATEAREN ALDEKO DA, PRESENTZIA HORI GURASOEN AUKERATZEKO AHALMENA REKIN ETA GAZTELANIAREKIN BATERAGARRIA BADA

Gurasoek seme-alaben irakaskuntza hizkuntza aukeratu ahal izateak adostasun handia biltzen du euskal gizartearen (% 85), eta gehiengo hori nagusi da ere sektore ideologiko guztietan. Era berean, intentsitate eta zeharkakotasun gutxiagorekin bada ere, lautik hirurentzat (% 74) euskararen biziraupenak lotura du eskolan duen pisu handiari. Babes bera eta zeharkakotasun handiagok, ordea, kopuru berak (% 73)

uste du hurrek ama hizkuntzan eskolatan hasi beharko luketela, hizkuntza hura euskara nahiz gaztelania izan. Zatiketa agertzen da haur guztiei lehen hezkuntza osoa euskaraz ematearen alden daudenen (% 50) –batez ere abertzaleak (% 65)– eta horrekin ados ez daudenen (% 35) artean, azken multzo horretan ez-abertzaleak (% 46) nagusi dira, baina zatituago daude. Azkenean, gaztelaniaren presentzia euskara eta euskal kulturarentzat mehatxu bat ez izatearen iritziaren inguruan adostasuna da nagusi berriro ere (% 87) (ikus 13. grafikoa).

## SOILIK PNVK LORTU DU SALDO POSITIBOARI EUSTEA, HERRITARREK EUSKAL ALDERDIEI EMANDAKO BALORAZIOAN, ETA PSE-EE DA BERE BOTO EMAILEEK GUTXIEN BALORATZEN DUTENA

Euskal alderdiek azken hilabeteetan izan duten ibilbide politikoa baloratzeko eskatu diegu elkarrizketatuei, eta soilik PNVk lortu du berriro iritzi positiboan (% 34) eta negatiboan (% 21) arteko saldo positiboa (+13 puntu eta +2 puntu hobetuta). Aitzitik, beste alderdi politikoen saldoa negatiboa da. Txikienetik handienera: EHBren -11 puntu (+% 19 eta -30); Elkarrekin Podemosen -25 (+ 14 eta - 39); PSE-EEren -52 (+ 7 eta - 58); C's-ren -60 (+ 5 eta - 65) eta PPren -75 (+3 eta - 78). Sei hilekoan egonkortasun handia eman da, aldaketa txiki batzuekin. Bestetik, alderdien hauteslerien balorazio positiboak honako hauek dira, txikienetik handienera: PSE-EE % 27 (atzera gehien egiten duena); PP % 50; EP % 53; C's % 57; EHB % 61; eta, PNV % 71 (ikus 14. grafikoa).

## URKULLU LEHENDAKARIA DA GAINDITZETIK GERTU DAGOEN BAKARRA

Buruzagi politikoen balorazioetan, sei hilekoan ia nagusi izan da hobekuntza, bat-zazpi hamarren arteko irabaziak izanda, eta aurreko sei hilekoen ordena zertxobait aldatu da. Ezagutza mailari dagokionez, bere horretan geratu dira batzuen eta besteen arteko aldeak. Urkulu lehendakaria izan da berriro lehen posizioan gaingidizetik gertu (4,9, + 2 hamarren eta % 89ko ezagutza maila), haren ondoren daude: A. Ortuzar (4,5 eta % 61eko ezagutza maila), P. Iglesias (4,1, + 6 hamarren hobetuta eta % 89ko ezagutza maila), A. Garzón (4, eta % 62ko ezagutza maila), eta ondoren berdinduta daude (3,9) A. Otegi (% 84ko ezagutza maila), I. Mendia (% 63ko ezagutza maila), A. Rodriguez (% 22ko ezagutza maila) eta L. Martínez (% 29ko ezagutza maila). Taularen amaieran ageri dira honako hauek: P. Sánchez (3,2, eta puntuazioen % 87) eta zentro-eskuineko liderrak; hots, A. Alonso (2,1, eta % 61eko ezagutza maila), S. Sáenz de Santamaría (1,7 eta % 86ko ezagutza maila), A. Rivera (1,7, eta puntuazioen % 87) eta M. Rajoy (1,3, eta % 92ko ezagutza maila gorenak). --- Ikus 15. grafikoa ---

Ostera, A. Alonso lider popularrak lortu du boto emaile propioen balorazio onena (8,8) eta sei hilekoaren aurrerapen handiena (+3,5 puntu), eta haren atzetik Urkullu lehendakaria dago (6,6). Gero datoz gainerako liderrak eta azken lekuan P. Sánchez (4,9) da boto emaile propioen balorazio txarrena jaso duena.


Azkenik, puntuazio hauek onarpen indizearekin osatzen baditugu (puntuatzean gutxienez gaingiditu bat ematen dutenen %), Urkullu lehendakaria da aurrena (% 57, eta sei hilekoan aldaketarik izan gabe). Berriro ere, gaingidize nota gehien lortzen dituen bakarra da. Haren atzetik, hurrenez hurren: P. Iglesias (% 43 eta + 4 puntu), A. Otegi (% 38 eta + 2 puntu), Ortuzar (% 36 eta -2 puntu), A. Garzon (% 28 eta -4 puntu), I. Mendia (% 27 eta + 3 puntu), P. Sánchez (% 26 eta + 3 puntu), L. Martínez (% 13), A. Rivera (% 12 eta - 1 puntu), A. Alonso (% 11 eta + 1 puntu) eta S. Sáenz de Santamaría (% 10 eta - 5 puntu), eta azkeneko lekuan Rajoy (% 8 eta - 1 puntu) --- Ikus 16. grafikoa ---.



## 8. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA POLITIKOAREN BALORAZIOA


### EUSKADIKOAKO

Aber. = 25% (+4)  
Ez aber. = 28% (+12)




Aber. = 33% (-3)  
Ez aber. = 25% (-5)

### ESPAINIAKOAKO




Aber. = 79% (-7)  
Ez aber. = 73% (-3)


### 9. Grafikoa: ORAINGOKO KOALIZIO GOBERNUAREN KUDEAKETAREN NOTA




10. Grafikoa: PNVK AZKEN BI URTEETAN ESTATUKO AURREKONTU OROKORREI EMANDAKO BABESAREN BALORAZIOA




11. Grafikoa: PNK KATALUNIAKO INDEPENDENTISTEI 155. ARTIKULUAREN AURKA EMANDAKO BABESAREN BALORAZIOA




12. Grafikoa: EUSKADIKO IKASTEIXE PUBLIKOETAN LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAN HIZKUNTZA DESBERDINETAN EMAN BEHARKO LITZATEKEEN KLASE DENOAREN PORTZENTAJEA




### 13. Grafikoa: ADOSTASUNA/DESADOSTASUNA EAKEO ESKOLARI BURUZKO ESALDI BATZUEKIN



## 14. Grafikoa: AZKEN HILABETEETAKO ALDERDI POLITIKOEN IBILBIDEAREN BALORAZIOA



## 15. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN BALORAZIOA EUSKADIN




(%) Balorazioa ematen duten elkarrizketatuen ehunekoa

Euskobarómetroa 2018ko Maiatza



## 16. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN ONARPEN INDIZEA EUSKADIN





# IV. Atala

---

Ez-abertzaletasunaren sentimendua nagusi da berriro euskal gizartean, zatiketa kroniko baten erdian.

---

Euskal eta espainiar identitateen arteko bateragarritasunak nagusi izaten jarraitzen du, euskalduntasuna argi nabarmenduz.

---

Autogobernurako lehentasunek zatiturik jarraitzen dute autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean.

---

Gehiengo handi batek gogobeteta jarraitzen du Estatutuarekin.

---

Gernikako Estatutuaren aldeko gehiengoaren babes esplizituak berdindu egin du 1979ko erreferendumean lortutakoa.

---

Independentzia nahiak gutxiengoa izaten jarraitzen du, ziurgabetasun etorkizun batean.

---

Balizko erreferendum batean, EZEZKOA BAIEZKOAri gailenduko litzaiokie 5 puntuko aldeaz, eta are alde handiagoz independentziak EBtik irtetea eta Espainiako merkatua galtzea eragingo balu.

---

Gehiengoak 155a Katalunian aplikatzearen aurka dago, baina hauteskunde autonomikoak aurreratzearen alde.

---

Gehiengoak Kataluniako independentisten hauteskunde emaitzen kudeaketa gaitzesten du.

---

## EZ-ABERTZALETASUNA NAGUSI DA BERRIRO EUSKAL GIZARTEAN, ZATIKETA KRONIKO BATEN ERDIAN

Abertzaleen (% 45) eta ez-abertzaleen (% 51) arteko zatiketa kroniko baten erdian, bi taldeen arteko aldeak areagotu egin dira berriro aurreko sei hilekoaren berdinketaren ondoren; hala, lehenengoek -3 puntuko atzerapena izan dute sei hilekoan, eta bigarrenengoek, +3 puntuko aurrerapen korrelatiboa. Probintziak, abertzaletasun sentimendua Gipuzkoan bakarrik da nagusi (% 50); ostera, Bizkaian (% 55) eta, batez ere, Araban (% 60) sentimendu ez-abertzaleak gailentzen dira. Hautesleriei erreparatuta, ez-abertzale definitzen direnen artean, gutxienekoa abstentzionisten % 68 da, eta gehiengoa boto emaile popularrena da (% 100). Aldiz, sentimendu abertzalea nagusi den hauteslerietan, gutxiengoa PNVn dago (% 68), eta gehiengoa, berriz, EHBren boto emaileen artean (% 78) (ikus 17. grafikoa).

## EUSKAL ETA ESPAINIAR IDENTITATEEN ARTEKO BATERAGARRITASUNAK NAGUSI IZATEN JARRAITZEN DU, EUSKALDUNTASUNA ARGI NABARMENDUZ

Seihilekoan nabarmen indartuta (+ 7 puntu), gehiengo batek -ia hiritik bik (% 65)- euskal eta espainiar identitateen arteko bateragarritasunari eusten dio. Bateragarritasun horren barnean, euskal-espainiar dualtasun orekatua da nagusi (% 40 eta + 9 puntu), eta horri jada ezaguna den euskaltasun sentimendua gehitu behar zaio (% 22), zeina sentimendu espainolistaren (% 3) oso gainetik baitago. Bestetik, muturreko espainolismoak gutxienekoa izaten jarraitzen du (% 3), eta beren burua soilik euskalduntzat dutenak laurden bat baino zertxobait gehiago dira (% 28, sei hilekoan - 7 puntu atzera eginda) ---ikus 18. grafikoa---

Euskaldun eta espainiar sentitzen direnen identitateen bateragarritasunari dagokionez, EHBren boto emaileen % 30aren eta C's-en boto emaileen % 86ren artean kokatzen da, eta tarte horretan daude PP (% 50), abstentzionistak (% 69), PNV (% 74), Elkarrekin Podemos (% 73) eta sozialistak (% 82). Nolanahi ere, euskaltasuna argi nabarmentzen da abertzaleen eta Elkarrekin Podemosen boto emaileen artean, eta orekatuagoa da, aldiz, autonomisten artean. Soilik euskaldun sentitzen direnen eskusubotasunak nagusi izaten jarraitzen du EHBren hauteslerian (% 67), eta adierazgarria da PNVren boto emaileen artean (% 23). Ostera, espainiar sentimendua da nagusi sozialisten, C's-en eta, batez ere, alderdi popularren (% 50) boto emaileen artean.

## EUSKAL GIZARTEAK ZATITURIK JARRAITZEN DU AUTONOMISMOAREN, FEDERALISMOAREN ETA INDEPENDENTISMOAREN ARTEAN

Estatuaren lurralde antolakuntzari dagokionez, urte arteko egonkortasun handiko testuinguru batean, euskal herritarrek zatiturik jarraitzen dute autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean. Euskal herritarren gehiengoak

egungo formula autonomikoaren (% 37) eta balizko federalismo baten artean (% 29) kokatuta jarraitzen du. Gaur egungo eredu autonomikoa aukera nagusia da oraindik popularren (% 67) eta sozialisten artean (% 50), eta, neurri apalagoan, PNVn (% 47), C's-en (% 43), abstentzionisten (% 41) eta Elkarrekin Podemos (% 39) artean, eta, oro har, ez-abertzaleen multzoan (% 46). Autogobernua bide federaletik garatzeko aukeraren aldekoak dira Elkarrekin Podemosen (% 44) boto emaeleak, eta, maila apalagoan, sozialistak (% 34), abstentzionistak (% 34) eta PNV (% 31). Aukera horrek babes berdintsua du abertzaleen eta ez-abertzaleen artean (herena gutxi gorabehera). Nolanahi ere, bi formula integratzaile horien baturak gehiengo argia izaten jarraitzen du (% 66), hiru euskal herritarretatik bi horien alde baitaude (ikus 19. grafikoa).

Formula deszentralizatzaile eta integratzaile horien aurrean, independentismoak –formula autodeterministaren edo konfederalaren bidez– herritarren laurdenaren (% 23) babesa izaten jarraitzen du, azken urtean - 5 puntu galdu baditu ere. Aukera hori EHBren boto emaeleen zati handi batek babesten du (% 65) eta abertzaleen taldearen ehuneko garrantzitsu batek (% 36), nahiz eta gutxiengoa izan PNVren (% 15) eta Elkarrekin Podemosen (% 14) boto emaeleen artean. Beste muturrean, euskal herritarren % 5 zentralismoaren aldekoak dira, arbuiaze edo lekukotasun adierazpen gisa, eta horren barruan, batez ere, popularren eta sozialisten boto emaeleak daude, gero eta gutxiago bada ere, eta horiekin batera C's-en gutxiengo bat ere.

## **GEHIENGO HANDI BATEK NAHIKO GOGOBETETA JARRAITZEN DU ESTATUTUAREKIN, ETA AREAGOTU DAITEKEEN AUTOGOBERNURAKO TRESNA IZATEN JARRAITZEN DU GEHIENGOAREN USTEZ**

Euskal herritarren gehiengo kualifikatu batek (% 81) –lau bostenek baino gehiagok– nahiko gogobeteta jarraitzen du Estatutuarekin. Aldiz, estatutuarekin gogobeteta ez daudenak ez dira iristen bostetik bat izatera (% 13) eta azken urtean egonkortasun erlatibo bat dago honetan. Hala ere, Estatutuak gogobetetzen dituenen artean, nolabaiteko jarrera kritikoa (% 42) eta baikortasuna (% 39) bereizten dira, eta lehenek aurrera egin dute azken urtean bigarrenen kalterako. Jarrera kritikoa dutenen artean, abertzaleak dira nagusi (% 51); aldiz, ez-abertzaleak erabat gogobeteta daude (% 50). Hautesleriei erreparatuta, EHBren boto emaeleak dira jarrera kritikoa dutenak (% 57), eta, neurri apalagoan, Elkarrekin Podemosen (% 44) eta PNVren (% 43) boto emaeleak. EHBren hautesleria da Estatutuak gutxien gogobetetzen duena (% 28); eta gogobetetze maila handiena, berriz, PSE-EEren (% 64), PPren (% 50) eta C's-en (% 50) hauteslerietan ematen da, eta neurri apalagoan, PNVren (% 46), Elkarrekin Podemosen (% 41) eta abstentzionisten (% 43) artean ---ikus 20. grafikoa---

Estatutuarekiko deserosotasun erlatiboari eta gaitzespenari ñabardura handiak egin behar zaizkie berririo, herritarrei egungo autogobernu estatusaren alternatibak zein

diren galdetzen zaienean. Gutxi gorabehera bostetik batek ez du aldaketarik nahi (% 20), horren ia bikoitzak falta diren eskumenak transferitzeko eskatzen du (% 36), eta gutxiago dira autogobernua erreformatu eta sakontzearen alde daudenak (% 28); aldiz, oso gutxi dira -gero eta gutxiago- (% 9) hausturaren eta prozesu subiranistaren alde garbiki dauden herritarrak, eta kopuru honek aldaketa nabarmenak izan ditu erreformismoaren alde. Lehenengo bi aukeren barnean, abstentzionistak eta C's, PP, PSE-EE, PNV eta Elkarrekin Podemosen boto emaile gehienak sar daitezke, ñabardurak ñabardura (autogobernua sakontzea nahi lukete, batik bat, PNVren eta Elkarrekin Podemosen boto emaileek); aldiz, EHB zatituta dago orain subiranismoaren (% 32) eta autogobernua areagotzearen (% 33) artean.

## **GERNIKAKO ESTATUTUAREN ALDEKO GEHIENGOAREN BABES ESPLIZITUAK BERDINDU EGIN DU 1979KO ERREFERENDUMEAN LORTUTAKOIA**

38 urte igaro direnean Gernikako Estatuaren onarpena berresteko erreferenduma egin zenetik, gaur erreferenduma berriro egingo balitz, baiezkoak (% 51) gehiengo lortu luke, 1979an lortutako emaitza (% 53) berdinduta, azken lau urteetan ia etenik gabeko gorakada izan ondoren (+21 puntu). Aldeko iritzi hori ia berdin suma daiteke abertzaleen (% 58) eta ez-abertzaleen (% 45) artean. Aldiz, orain dela 30 urteko ezezko botoak (% 3) gora egingo luke (% 8 eta -14 puntuko urte arteko atzerapena) garai hartan izandako abstentzioaren kargura (1979an abstentzioa % 41 izan zen). Zatiketa hautesleria guztien ezaugarria da, baina baiezkoa nagusi da guztietan, EHBrena barne, bigarren seihilekoz jarraian; azken horretan, zatiketa besteetan baino handiago bada ere, ezetzak gero eta babes gutxiago du (% 22) (ikus 21. grafikoa).

## **INDEPENDENTZIA NAHIAK GUTXIENGOA IZATEN JARRAITZEN DU, ZIURGABETASUN ETORKIZUN BATEAN**

Euskal autogobernuaren formula politikoa zein den alde batera utzita, euskal herritarren laurdenek baino gehiagok (% 28) independentzia nahi dutela adierazten dute, urte arteko egonkortasun handiarekin. Hori adierazi dute EHBren boto emaile gehienek (% 72) eta abertzale gehienek (% 46), eta, maila apalagoan, PNVren boto emaileek (% 22). Iritzi horren aurrean, euskal gizartearen gehiengoak (% 65) adierazi du ez duela independentziarik nahi (% 40) edo horretarako gogo handirik ez duela (% 25), eta iritzi horren aldekoak dira; batez ere, ez-abertzaleak (% 80) eta alderdi autonomisten boto emaileak (hamarretik bederatzita baino gehiago), baita PNV (% 75), Elkarrekin Podemos (% 69) eta abstentzionista (% 68) gehienak ere --- ikus 22. grafikoa ---.

Euskadi independente baten hipotesiaren aurrean, bizi baldintzen bilakaerari buruzko euskal gizartearen itxaropenak oso zatituta ageri dira: alde batean, hobe biziko ginatekeela uste dutenak daude (% 22), eta, bestean, kontrakoak pentsatzen

dutenak eta okerrago egongo ginatekeela uste dutenak (% 32); seihilekoan bigarrengoek - 10 puntu egin dituzte atzera. Ia laurdenek uste dute gauzak ez lirатеkeela aldatuko (% 23) edo ez dakite zehazki zeren alde egin (% 8). Baikorrenak EHBren boto emaileak dira berriro (% 59), eta, oro har, abertzaleak (% 37). Bestalde, ezkorrenak dira popularrak (% 83), sozialistak (% 59), C's-en boto emaileak (% 86) eta, oro har, ez-abertzaleak (% 46), baita abstentzionistak (% 34) eta Elkarrekin Podemosen (% 33) eta, maila apalagoan, PNVren (% 33) boto emaileak ere.

## BALIZKO ERREFERENDUM BATEAN, EZEZKOA BAIEZKOARI GAILENDUKO LITZAIROKE 5 PUNTUKO ALDEAZ

Era berean, berriro ere galdetu diegu gure elkarriketatuei ea zer egingo luketen bihar bertan Euskadiren independentziari buruzko erreferendum bat egingo balitz. Iritzi oso desberdinak bildu ditugu, eta iritzi horietan bilakaera nabarmen bat hauteman ere bai. EZETZA, orain dela sei hilabete baino apalagoa, % 37koa da, azken seihilekoan -10 puntu atzera egin ondoren abstentzioren alde; ostera, BAIETZAK, hasieratik finkatuagoa, apur bat egin du aurrera (+ 2 puntu seihileko honetan) eta euskal gizartearen heren bat baino gutxiago da (% 32); hortaz, orain dela hiru urteko berdinketa hautsi, eta ezetzak 5 puntuko aldea hartu du, baina urrun geratu da aurreko seihilekoaren 17ko aldea. Gainera, % 20k diote abstenitu egingo lirатеkeela eta % 11 ez daude ezein aukeraren alde. Abertzaleek eta ez-abertzaleek jarrera argiak dituzte: alde (% 51) eta kontra (% 54), hurrenez hurren. Hautesleriek iritzi bera dute: EHBren boto emaileak (% 80) alde daude, baita, neurri apalagoan, EPrenak (% 27) eta PNVrenak (% 23) ere, eta ezezkoaren aldekoak EPren (% 36) eta PPren nahiz C's-ren (% 100) artean kokatzen dira, tartean egonda PNV (% 42) eta PSE-EE (% 86) eta abstentzionistak (% 33) --- ikus 23. Grafikoa ---.

Independentziaren aldekoiei galdetu diegu ea zer neurritaraino eutsiko lioketen baiezkoari, baldin eta horrek EBtik irtetea eta Espainiako merkatuan atzera egitea eragingo balu. Bi kasuetan, baiezkoa % 28 edo % 27 murriztuko litzateke, hurrenez hurren, eta % 3 ezezkoa igaroko litzateke. Bestetik, % 2-3 zalantzan egongo lirатеke bi kasuetan, eta horrek ia berdinean eragingo luke EHBren eta PNVren hauteslerietan, nahiz eta modu desberdinean kasu batean (EBtik irtetea) nahiz bestean (Espainiako merkatuan atzera egitea).

## GEHIENGOA KATALUNIAN 155A APLIKATZEAREN AURKA DAGO, BAINA HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK AURRERATZEAREN ALDE

Kataluniako krisia euskal politikagintzan izaten ari den eragin nabarmena dela eta, estatuko Gobernuak, PSOErekin eta C's-rekin CEren 155. artikulua lehenengoz aktibatzeko egindako akordio parlamentarioa aplikatuta, Generalitatean esku hartu izana baloratzeko eskatu diegu elkarriketatuei. Gehiengo argi batek (% 58) neurriak

justifikaziorik ez duela adierazi du; bestalde, laurden bat (% 24) neurri horren aldekoa da, eta bostetik ia batek ez du adierazpenik egin edo ez du horri buruzko iritzirik. Neurriaren aurka abertzaleak daude gehienbat (% 75), baina ez-abertzaleen gehiengo bat ere (% 42). Hautesleriei erreparatuta, popularren (% 83) eta C's-ren boto emaileen (% 71) gehiengoak bakarrik justifikatzen du; sozialisten artean, ordea, erdiak aldekoak (% 43) dira eta beste erdiak kontrakoak (% 41), eta gainerako guztiak aurka daude, argi eta garbi (ikus 24. Grafikoa).


Alabaina, aipatutako 155. artikulua aplikatuta joan den abenduko hauteskunde autonomikoak aurreratzeko justifikazioaz galdetuta, gehiengoa (% 49) neurri horren aldekoa da, eta herenek baino apur bat gehiagok (% 35) ez dute justifikatzen. Kasu honetan, abertzaleen gehiengoa (% 60) hauteskunde deialdi horren aldekoa da, eta ez-abertzaleak zatituta ageri dira deialdiaren aldekoen (% 40) eta kontrakoen (% 43) artean; aldeko jarrera garbia EHBk (% 64), EPk (% 56) eta PNVk (% 54) adierazi dute, eta popularrak (% 67) eta sozialistak (% 45), berriz, kontra agertu dira.

## GEHIENGOAK KATALUNIako INDEPENDENTISTEN HAUTESKUNDE EMAITZEN KUDEAKETA GAITZESTEN DU


Euskal herritarren gehiengoaren iritziz (% 51), alderdi katalan independentistek ez dute ongi jokatu hauteskundearen emaitzak aplikatzeko eta Kataluniako gobernua osatzeko unean; lautik batek baino gehiagok (% 26), ordea, modu positiboan baloratzen ditu jarduera horiek. Kasu honetan, ez-abertzaleek nagusiki aurka daudela adierazi dute (% 64), eta abertzaleen iritzia, ordea, zatituago daude: aldekoak % 43 dira, eta aurkakoak % 38. Balorazio positiboa nagusi da bakarrik EHBren (% 67) hauteslerian (ikus 25. grafikoa).




## 17. Grafikoa: EUSKALDUNEN SENTIMENDU ABERTZALEA




## 18. Grafikoa: EUSKALDUNEN IDENTITATE NAZIONAL SUBJEKTIBOA




## 19. Grafikoa: ESTATU EREDUARI BURUZKO ALTERNATIBAK



## 20. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUAREKIKO GOGOBETASUNA ETA EGUNGO EGOERA KONPONTZEKO ALTERNATIBAK




21. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA, 1979 ETA 2018 ARTEAN\*



\* Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2017ko Urria)

## 22. Grafikoa: EUSKALDUNEN INDEPENDENTZIA NAHIAK ETA BIZI ITXAROPENAK INDEPENDENTZIAREN ONDOREN

### INDEPENDENTZIA NAHIAK



EHB= 72% (-12)  
PNV= 22% (-3)  
Aber.= 46% (-5)

PNV= 37% (+15)  
Podemos=30% (+11)  
Abst.= 20% (+9)

Aber.= 27% (+8)  
Ez aber.= 23% (+11)


Aber.=21% (=)  
Ez aber.= 57% (-10)

PP= 100% (+10)  
PSE-EE= 61% (-24)  
Abst.= 48% (-9)  
Podemos=39% (-14)  
PNV= 38% (-6)

### BIZI ITXAROPENAK

Aber.= 37% (-5)  
Ez aber.= 10% (+4)

EHB= 59% (-2)  
PNV= 18% (=)




Aber.= 18% (-5)  
Ez aber.= 46% (-15)

PP= 83% (+3)  
PSE-EE=59% (-20)  
Podemos=33% (-16)


23. Grafikoa: BOTOA, INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUM BAT EGINCO BALITZ, ETA BAIEZKO BOTOARI EUSTEKO BALDINTZAK

**BOTOA, INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUM BAT EGINCO BALITZ**


**BALDINTZAK**



**EUSKADI EBETIK KANPO (%32)**



**EUSKADIK POSIZIOAK GALTZEN DITU ESPAINIAKO EKONOMIAREKIKO (%32)**




PP=100% (-)  
PSE-EE=86% (-2)  
PNV=42% (-7)  
Podemos=36% (-28)  
Abst.=33% (-13)

EHB=80% (-3)  
Podemos=27% (+6)  
Abst.=24% (+3)  
PNV=23% (-1)


Aber.=19% (-6)  
Ez aber.=54% (-13)

Aber.=51% (-1)  
Ez aber.=15% (+5)

**HAUTESKUNDEAK**




**155 ARTIKULUA**





25. Grafikoa: KATALUNIAKO INDEPENDENTISTEK HAUTESKUNDE EMAITZAK APLIKATZEKO MODUAREN BALORAZIOA





# V. Atala

---

Euskal gizarteak ETA Euskadirentzat negatiboa izan dela berretsi du.

---

ETAren indarkeria frankismoaren edo estatuko indarkeriaren bidez justifikatzearen aurka dago gehiengoa.

---

Euskal gizartearen adostasuna finkatu da terrorismoaren amaiera egiteko moduari dagokionez: irmotasunaren eta adiskidetzeko eskuzabaltasunaren artean.

---

Egindako min eta akatsen aitortzak eta ETAren barkamen eskaerak euskal gizartea zatitzen dute.

---

Euskal gizarteak bere jarrera mantentzen du, terrorismoko delituak dituzten presoak barkatzeari eta gizarteratzeari dagokienez.

---

## EUSKAL GIZARTEAK "ETA" EUSKADIRENTZAT NEGATIBOA IZAN DELA BERRETSI DU

ETAren disoluzioaren ondoren, haren 40 urteko ibilbidearen balorazioa egiteko eskatu diogu berriro euskal gizaritari, eta gehiengoak adierazi du Euskadirentzat oso edo nahikoa negatiboa izan dela, seihilekoan +5 puntu aurreratu ondoren. Iritzi hori orokorra eta nagusia da probintzia guztietan, abertzaleen (% 78) eta ez-abertzale (% 84) artean, eta hautesleria guztietan (EHBren % 58tik PPren % 100era). Zeharkako gehiengo horren aurrean, ez dira hamarretik batera heltzen (% 4) positiboki baloratzen dutenak, eta iritzi hori abertzaleen (% 5) eta EHBren (% 14) artean ematen da, batez ere. Azkenik, axolagabetasuna eta iritzirik eza % 15era heltzen dira (ikus 26. grafikoa).

## ETAREN INDARKERIA FRANKISMOAREN EDO ESTATUKO INDARKERIAREN BIDEZ JUSTIFIKATZEAREN AURKA DAGO GEHIENGOA.

Lau urteren ondoren, euskal gizaritearen gehiengoak (% 67) ETAren terrorismoa frankismoaren edo Estatuko indarkeriaren bidez justifikatu nahi dutenen iritziaren aurkakoa da, eta iritzi hori nagusia da, hain zuzen, abertzaleen artean (% 58), ez-abertzaleen artean (% 77) eta hautesleria guztietan (Podemosen % 67tik PPren % 100era). Gehiengo horren aurrean, bostetik bira ez dira iristen (% 16) justifikazio hori partekatzen dutenak, eta, EHBren hautesleria zatituta ageri zaigu berriro partekatzen dutenen (% 40) eta ez dutenen (% 32) artean --- ikus 27. Grafikoa ---.

## EUSKAL GIZARTEAREN ADOSTASUNA FINKATU DA TERRORISMOAREN AMAIERA EGITEKO MODUARI DAGOKIONEZ: IRMOTASUNAREN ETA ADISKIDETZEKO ESKUZABALTASUNAREN ARTEAN

Gure herritarrei berriro planteatu diegu batzuek nahiz besteek Euskal Herrian indarkeriaren zikloa ixteko planteatzen dituzten mezu nagusi eta eskakizun politikoekin ados dauden ala ez adierazteko, eta askotan adostasun garrantzitsua lortu da. Hala, eta adostasun handienetik txikienerako hurrenkeran, hamarretik ia bederatzik (% 88, % 3ren aurrean, eta azken bost urteetan +8 puntuko igoera izanda) "bi bandoen biktimekin justizia egin behar dela" adierazi dute abertzaleek (% 92) eta ez-abertzaleek (% 85), bai eta hautesleria guztiek ere (boto emaile sozialisten % 80tik EHBren boto emaileen % 93ra). Gainera, ia proportzio berean (% 76, % 10aren aurrean), herritarrek "ETAk eta haren aktibistek beren indarkeria historiaren akatsa onartu eta iraganaz damutu behar dutela" uste dute, aurrekoaren oso antzeko erradiografia politikoa emanda (EHBren % 54tik PPren % 100era), eta + 7 puntuko igoera nabarmena izan du azken urtean bakarrik. Era berean, ia gehiengo berak

(% 67, % 17ren aurrean) zera eskatzen du: "ETAk epaitu gabe dauden 300 atentatu baino gehiagoren egiletza argitzea"; azken bost urteetan, eskaerak +6 puntuko igoera izan du eta gehiago ematen da ez-abertzaleen artean (% 74) abertzaleen artean baino (% 59), eta nagusitzen da ere hautesleria guztian (EHBren hautesleriaren % 42tik PPren % 100ra). Terrorismoa justifikatzeko gatazkaren teoriaren aurkako jarrerak antzera banatzen dira, baldin eta kontuan hartzen badugu gehiengo bera (% 60, % 17ren aurrean) ados dagoela baieztapen honekin: "ez dago eta ez da egon terrorismoa justifikatzeko gatazkarik". Iritzi horren aldekoak dira abertzaleak (% 59) eta ez-abertzaleak (% 75), y ia hautesleria guztiak (oso zatituta ageri den EHBren % 35ren gutxienekotik PPren % 100era). Eta, amaitzeko, "ETA izan da Euskadin bizi izan dugun indarkeriaren erantzule nagusia" baieztapenaren aurrean gehiengoaren adostasuna hautsen da (% 49, % 32ren artean); horren aurka, batik bat, abertzaleak daude (% 41), oso zatituta, eta alde, berriz, ez-abertzaleak (% 62). Aurkako iritzia duen EHB aldetzen da (% 62) adostasun horretatik, zeina gainerako hautesleriek partekatzen baitute intentsitate desberdinez (ikus 28. grafikoa).

## EGINDAKO MIN ETA AKATSEN AITORTZAK ETA ETAREN BARKAMEN ESKAERAK EUSKAL GIZARTEA ZATITZEN DUTE

Edonola ere, seihileko honetan albistea ETAREN disoluzioaren iragarpena eta eszenaratzea izan da, eta eztabaida piztu du ETAk egindako mina eta akatsak onartzeko moduak eta, batez ere, biktimen zati bati bakarrik eskatu izanak. Zentzu horretan, gure elkarrizketatuei, lehenik eta behin, ETAk egindako mina eta akatsak aitortzeko moduaren zintzotasunez edo zintzotasunik ezaz galdetu diegu. Gizartea zatituta ageri zaigu; alde batetik, haren zintzotasuna onartzen dutenak daude (% 37), batez ere, abertzaleen artean (% 51); eta bestetik, auto-errugabetasun gisa ikusten dutenak (% 35), iritzi hori nagusi izanik ez-abertzaleen artean (% 46); beste batzuk ez dute horren gaineko adierazpenik egin edo iritzirik eman (% 28). EHBren hautesleriaren gehiengoak (% 76) adierazpen zintzoa dela irizten dio; PNV eta EPren boto emaleak bi posizioen artean banatuta daude; eta, popularrek, sozialistek eta C's-koek auto-errugabetasun gisa ikusten dute, argi eta garbi (ikus 29. grafikoa).

Pentsatzekoa denez, hasierako adierazpenak, non biktimei barkamena eskatzen baitzitzaien haien arteko bereizketa eginez, biktimen elkarte batzuen haserrealdia eta aurkako jarrera eragin zuen. Zentzu horretan, biktimen elkarte horiek adierazitako kontrako jarrera horrekiko adostasun mailari buruz galdetu diegu gure elkarrizketaturi, eta aurrekoaren antzeko zatiketa ematen dela ikusi dugu, baina alderantziz. Gehiengo eskas bat (% 43) biktimen iritzia aldekkoa da; batez ere, ez-


abertzaleen artean (% 57); ostera, gutxiengo esanguratsu bat (% 35) ez dago horren alde, iritzi hori nagusi izanda abertzaleen artean (% 50); aurrekoaren oso antzekoa den erradiografia politikoa ageri zaigu.

## **EUSKAL GIZARTEAK BERE JARRERA MANTENTZEN DU, TERRORISMOKO DELITUAK DITUZTEN PRESOK BARKATZEARI ETA GIZARTERATZEARI DAGOKIENEZ**


Azken seihilekoan izandako joera aldaketa esanguratsuaren ondoren, oraingo honetan egonkortasuna eman da, eta handituz doan (+ 11 puntu azken urtean) gizartearen gutxiengo bera (% 46) damua erakutsi eta armak uzteko erabakia adierazten duten terrorista guztiei gizarteratze neurriak eskaintzearen alde dago. Horien aurrean, lautik ia batek (% 23) uste du neurri horiek soilik erabil daitezkeela hilketa deliturik ez dituzten presoekin, eta ia beste horrenbeste (% 21 eta -12 puntu azken urtean) ez daude prest barkatzeko, eta uste dute bai batzuek bai besteek zigorra osorik bete behar dutela (ikus 30. grafikoa).

Abertzaleen artean nagusi dira baldintzarik gabeko barkamenaren aldekoak (% 63), eta ez-abertzaleak oso zatituta daude gai horren inguruan. Baldintzarik gabeko barkamenaren aldeko jarreraren, EHBren boto emaileei (% 74) orain EPrenak (% 55) eta PNVrenak (% 50) batu zaizkie. C's-ren (% 71) hautesleriak eta PPrenak (% 50) zigorrak osorik betetzearen aldekoak dira, eta sozialistak, berriz, askoz ere zatituago ageri dira gai horren inguruan.

26. Grafikoa: ETAREN AZKEN 40 URTEKO IBILBIDEAREN GAINEKO BALORAZIOA



27. Grafikoa: ADOSTASUN MAILA FRANKISMOAK ETA ESTATU INDARKERIAK ETAREN TERRORISMOA JUSTIFIKATZEN DUJELA DIOTENEKIN








29. Grafikoa: ADOSTASUN MAILA BIKTIMAK ETAK BARKAMENA SELEKTIBOKI ESKATUZ ARGITARATU DUEN KOMUNIKATUAREN AURKA EGIN DITUZTEN ADIERAZPENEKIN, ETA ETAK ERAGINDAKO MINA AITORTZEKO MODUAREN BALORAZIOA

**BIKTIMAK AKORDIOREN AURKA**

EHB=69%  
PNV=34%  
Podemos=34%

Aber. = 50%  
Ez aber. = 22%




PP=83%  
PSE-EE=68%  
Podemos=47%  
PNV=44%

Aber. = 27%  
Ez aber... = 57%

**MINA AITORTZEKO MODUA**

Aber. = 23%  
Ez aber. = 46%


PP=100%  
PSE-EE=57%  
PNV=34%  
Podemos=31%



Aber. = 51%  
Ez aber. = 26%

EHB=76%  
Podemos=39%  
PNV=38%

30. Grafikoa: TERRORISMOKO DELITUAK DITUZTEN PRESOEN GIZARTERATZEARI BURUZKO IRITZIA



A series of horizontal dashed lines for writing, consisting of 20 lines spaced evenly down the page.